



## KOSTUEN EGITURA

Gure proiektua aurrera eramateak kostu batzuk dauzka. Gure ideia-aren gastuak bi taldetan desberdindu ditugu. Alde batetik kostu finkoak eta bestetik aldakorrak.

### **Finkoak:**

Kostu finkoak denbora tarte batean konstante mantentzen diren balioak dira, produktuaren eskaintza kopurua edozein izanik. Proiektu honetan hauek aukeratu ditugu.

- Publizitatea
- Mugikorra
- Makinak
- Zakarrontzi elektrikoak
- Makinak apurtzen badira, mantentze-zerbitzua kontratatua izango dugu.



### **Aldakorrak:**

Kostu aldakorrak produktutako kantitatearen edo bolumenaren eta salmenten arabera aldaketak jasaten dutenak dira.

- Maskara



Badakigu zaborraren bilketa udal eskumenekoa dela. Eta badakigu normalean udalek enpresak kontratatzen dituztela, eta aldundiarekin hitzarmenak hondakin ezberdinak biltzeko. Beraz ez dugu tasarik ordaindu behar enpresa moduan.

Gure hasierako inbertsioa 15.000€ koa izango da. Diru horretako 3000€ gastu aldakorretan, hau da, maskarak eta gure enpresa aurrera ateratzeko baliabideetan inbertituko ditugu, gero 8000€ kostu finkoetan inbertituko dugu eta soberan dagoena kontu korrante batera eramango dugu.

Horretaz gain, pentsatu dugu makinak erosi beharrean, alokatu egingo ditugula kostuz murrizteko.

Gainera, *Behargintzan* diru laguntza bat eskatzea pentsatu dugu. Gu gazteak garenez, pentsatu dugu enpresa hauek asko lagunduko gaituztela gure proiektua aurrera eramaten. Proiektua ingurumena hobetzeko denez, gure enpresak Gizarte Erantzukizun Korporatiboa izango du.

<https://behargintza.eus/>



**behargintza**

Basauri / Etxebarri